




- **DISTANTZIA:** 5,3 KM
- ⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 2 H
- ⬆ **DESNIBELA:** 280 M

# SL®- NA 79

## ARTIKOMENDIA

**HASIERA:**  
 NA-137. KM 35,5  
 IBOIKO LEZEA

**OHARRA:**  
 NA-137



Ibilbide harrigarri honek Belabartze ibarra eta ur-jauzia, Iboiko lezea eta Erdi Aroko bi zubi ezagutzeko aukera ematen du. Horretarako, antzina Erronkariko jendeak udako larreetara joateko erabiltzen zituen bide zaharrak zeharkatzen ditu. Bidea Otsindunduako zubian hasten da, Iboiko leze ezagunaren ondoan. Gero ibaiarekiko paraleloan jarraitzen du, berehala Belabartzerako igoera hasteko. Behin goian egonda, bidea beherantz doa, Belabartzeko ur-jauzi ikusgarritik igarota, Belagua ibairaino heldu arte. Zubi erromanikoa zeharkatu ondoren, bidea ibaiarekiko paraleloan itzultzen da hasierako puntura.